




We hare plenty in here **Euzkadin eginak**

Simon Sam Gandarias

Edizioa: Joseba Sarrionandia

Saio eta Testigantza, 279

978-84-9172-443-8

2025 - 168 or. - 15 x 21,5 cm

22,00 €

«*We are plenty in here...*» hasten da abesti bat, ingelesa eta euskara konbinatuz, kaleko prostituzio harreman batzuk kontatzen dituen. Herri-abesti moduan zabaldu dena, baina norbaitek sortu zuena nonbait, eta noizbait.

Autore ahaztua Simon Gandarias ibarrangelutar-elantxobetarra. Duela ehun urte, zer-eta bertsoak egiten zituen *Sam* Gandariasek Utah, Nevada, Kalifornia, Idaho, Oregon aldean. Zergatik alde egin behar izan zuen Euskal Herritik? Zertarako idazten zituen euskarazko bertsoak Ameriketako *Far West*ean?

Halako galderen bidetik, testuak arakatu eta indusketa moduko gogoetak eginez aurkezten digu Joseba Sarrionandiak emigrante, artzain eta ostalari umil hori («ez zen Jaungoikoaren oiloa lako txintxoia izango») eta haren eskukada bat bertso («ez dira arte-obra handiak behar bada»). Testu arkeologia eta memoria historiko ariketa da liburu hau, dena hain laster ahazten dugun sasoi honetan.



Simon Gandarias Olano (1897-10-28 / 1949-12-9)

Utah, Nevada, Kalifornia, Idaho, Oregon aldean ibili zen Ibarrangelu-elantxobetarra. Biderdi baserrian jaio eta, beste askok bezala, soldadutza egin orduko alde egin zuen Ameriketara. Han bizi izan zen, artzain lanean lehenengo, eta gero ostalari. Harik eta 1949an jaioterrira ja hiltzeko itzuli zen arte.

Bertsoak idatzi eta kopiatan zabaltzeko afizioa zuen. Baina, bertso-paper haiek gehienak galdu egin ziren. Orain, testu haiei eta *Sam* Gandariasi buruzko ikerketa egin du Joseba Sarrionandiak.



Joseba Sarrionandia Uribelarrea (1958-04-13)

Iurreta-Durangon 1958an jaiotako idazlea, 1980tik aurrera sorterritik urrun bizi izan dena, eta kartzelatik 1985ean ihes egin zuenetik urte asko ibili dena paradero ezezagunean. Ipuin, eleberri, poesia eta saiakera askoren autorea eta, 2021ean itzuli zenetik, literatura sormenaren alorrean jarraitzen du lanean. Liburu honetan, testuen arkeologia egiten ahalegindu da. Bertso ahaztu batzuk bilduz eta emigrante baten bizitzaren lorratza ikertuz.